



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/10/25

Batzar Nagusiek Bizkaiko errepideetan marra gorria jarteko aukerea aztertzea eskatu deusie Aldundiari

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako batzordeak aho batez onartu dau gaur, sei hilebeteko epean, “marra gorria” deritxona ezarteko bideragarritasun “teknikoaren eta legezkoaren” gaineko txostena egitea eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiari, txirrindulariak babesteko. Arauz besteko proposamenak Batzarretako talde guztien sinadurea daroa, PPrena izan ezik, baina talde horrek, azkenean, bat egin dau proposamenagaz, aldeko botoa emonez.

Joan zan maiatzaren 13an, Eskarien eta Herritarrakazko Hartu-emonen batzordean, Erandioko Txirrindulari Elkarteko ordezkari bik proposamen hori aurkeztu eben, Batzar Nagusietako taldeek eurenganatu eta arauz besteko proposamen moduan aurkezteko. Batzordekide batzuek adierazo dabenez Europako herrialde batzuetan “ohikoa” dan neurria apliketea erreza da, nahikoa dalako galtzadan, automobilaren eta bizikletaren artean egon behar dan 1,5 metroko segurtasuneko tartea ezarteko marra gorria margotzea, automobilek aurreratzeko maniobrak egiten dituenan kontuan izan deien.

Proposamena aurkeztu dabenez taldeek (EAJ-PNV, PSE-EE, EH Bildu, Podemos Bizkaia eta Talde Misto) gaur azaldu dabenez, Aldundiak aztertu egin beharko dau orain neurri hori arlo horretako ezelango legediaren kontra ete dagon, Errepideetako Araubide Orokorraren, Txirrindularientzako Bideen Lurraldeko Sektore Planaren edo Aldundiaren esku dagon Bizkaiko Txirrindularientzako Bideen gaineko 10/2014 Foru Arauan jasoten dan Txirrindularientzako Plan Zuzendariaren kontra, hain zuzen be.

EZEZKOA URDULIZKO OSPITALERAKO SARBIDEEN GAINEKO AZTERLANARI

Saio berean, batzordeak ez dau onartu EH Bilduk aurkeztu dauen arauz besteko proposamena. Proposamen horretan beste azterlan bat egitea defenditzen zan, Urdulizko ospitalea eskualdeko plangintzan eta trafikoaren fluxuen barruan “sartzeko”. Oraingo honetan, eskaria Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari bideratu eta txosten hori 3 hilebeteko epean gauzatzeko konpromisoa eskatzen jaken. Txostenean, ospitaleak bere inguruko trafikoan sortzen dituan “eraginak” murrizteko neurriak jaso beharko litzatekez. Koalitzino abertzalearen proposamenak Podemos Bizkaiaren eta Talde Mistoaren aldeko botoak jaso ditu, eta EAJ-PNVk eta PSE-EEk kontra bozkau dabe. PP abstenidu egin da.

Proposamenaren alde agertu diran hiru taldeek esan dabenez, “preminazkoa” da Alfredo Espinosa ospitaleko sarbideen arazoa konpontzea, Uribe Ospitalea Plataformak Bizkaiko Batzarretako batzorde batean orain bost hilebete adierazo eban moduan. Zigor Isuskiza EH Bilduko batzordekideak azaldu dauenez, arazoaren konponbidea Aldundiak bideratu beharko leuke, sarbideek “udalaz gaindiko” izaerea daukielako, Lurzoruaren Legeak ezarten dauen moduan, eta ez toki mailako sistema, Foru Aldunditik adierazoten dan moduan.

EAJ-PNV taldearen eretxiz, ospitalerako proponidu dan sarbidea, oraindino osorik eregi barik dagona –Urdulizko lurretan planteatuakoa baino ez da gauzatu–, “nahikoa” da ospitalera iristea



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

bermatzeko. Irene Edesa jeltzaleak EH Bilduri gogoratu deutsonez, Urdulizek eta Sopelak konpromisoak hartu ebezan euren udaletako osoko bilkuretan, Olabide kalearen bukaeran eregi behar dan bidea euren esku hartzeko. EH Bilduren esku egoan Sopelako Udaleko gobernu taldeak berari jagokon zatia ez egitea erabagi eban, gogoratu dau Edesak, eta horren ostean, hartutako konpromisoak betetea eskatu dau.

BIDESAREA PLANAREN EGOEREA

Beste alde batetik, Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako foru diputatua be Batzarretara etorri da, Bizkaiko eskualde “guztietako” errepideetan hobekuntzak sartzen dituan Bidesarea Planaren gauzatze mailearen gaineko informazioa emoteko, PPK eskatuta. Planaren xedea eskualde guztien “lehiakortasunari eta garapenari” laguntzea da, eta lurraldeko errepideen kontserbazinorako planaren osagarria da.

2015-2017 epealdirako, “51.415.376 euroko” aurrekontuagaz, aurreikusita dagozan “19 jarduketetatik”, Pradalesek esan dauenez, “8.440.000 euroko” aurrekontua hartu daben sei amaituta dagoz. Honeek dira: hobekuntzak BI-623 errepidean, Durangon; sarbideen eta espaloien antolaketa barria BI-631 errepidean (Orueta-Santo Domingo); BI-2121 errepidearen egonkortzea eta euspina Morgan; BI-633 errepidearen hobekuntzea Urberuaga-Markinan; BI-635 errepideko bideko segurtasunaren hobekuntzea; eta A-8aren hobekuntza funtzionala Larraskituko lotunean.

Aldundiko arduradunak azpimarratu dauenez, “20,43 milioi” hartzen dituen beste bost jarduketa gauzatzen ari dira une honetan. Eta gainerako hobekuntzak –zortzi– datorren urtean egingo dira. Foru Aldundiak aurreikusten dauenez, lehenengo hiruhilekoan hasiko dira BI-2636 errepideko lanak Etxebarrian, eta BI-631 errepidearen trazaua arteztega gasolindegien eta Santo Domingo Gainaren artean. Urteko bigarren hiruhilekorako geratuko litzatekez Urberuaga-Plazakola-Berriatuako saihesbidea edo BI-631 errepidearen hobekuntzea (Mungiako Saihesbideko Biribilgunea eta Trobikarako Sarbidea). Eta urtearen bigarren erdialdetik aurrera hasiko litzatekez planean aurreikusten diran gainerako jarduketak.

Pradalesek esan dauenez, Bidesarea Planaren lehenengo zatia “epeak beteten ari da”, eta, “urtebete barru”, 2017-2019 epealdian gauzatu behar diran jarduketak jasoko dituan bigarren fasea aurkeztea gurako leuke. Fase horretarako jarduketa batzuk “argi dagoz” eta beste batzuk “Udalen eskarien araberakoak izango dira”.

“64.415 EUROKO ZEHAPENA” ANSAREO TALDEARI

Horrez gain, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako foru diputatuak Batzarretako taldeei esan deutsenez, Meaztegi Golf zelaia ustiatzen dauen enpresak, Ansareo taldeak, ez eban bete joan dan garagarriaren 8an Azpiegiturak erakundeagaz sinauta daukan kontratua, eta zelaia itxi eban, festa pribadu bat egiteko. Hori dala eta, “64.415 euroko” “zehapena” jarri jako, kontratuan ezarten dan moduan, hau da, kirol barruti horretako emakidadunak berme moduan aurkeztu eban diru-kopuruaren “%5a”.

Batak besteari hainbat burofax bialdu ondoren, Azpiegiturak erakundeak, data hori baino lau egun geroago, ez eukala instalazioak ixteko baimenik jakinarazo eutsan enpresari, horrek Meaztegi Golfeko erabiltzaileek “erabilerarako daukiezan eskubideak murrizten ebalako”, eta, Pradalesek esan dauenez, enpresak egindakoa “kontratua ez betete argia” izan da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

TURISMOAREN GAINENKO TASEA BIZKAIAN

Talde Mistoak Bizkaian “turismoaren gaineko tasea” ezarteko aukereari buruz planteau dauen gaiari jagokonez, Pradalesek esan dauenez, gai horren gaineko eztabaidea zabaldu “aurretik”, lehenengo beharrezkoa da Bilbo-Bizkaia jomuga turistikoa “finkatzea”. Aldundiko arduradunak gogoratu dauenez, izatekotan be, gai horren gaineko erabagia bultzatu behar dabenak Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra dira, joan dan garagarriaren 28an onetsi zan Turismoari buruzko Euskal Legean ezarten danez.

Bere berbetan, Bartzelona, Paris edo Erroma moduko Europako beste uri batzuetan gertetan dan moduan, turismoaren gaineko tasea apliketearen inguruko aurreko diagnostiko horretan, hainbat alderdi izan behar dira kontuan, turismoaren fidelizazino mailea, inplikautako eragileen partaidetzea eta bisitariari tasa bat ezartearen helburua, adibidez.

Pradalesek esan dauenez, 2016an, barriro be, Bizkaiak jasoko dauen turista kopuruaren marka gaindituko da eta epe laburreko itxaropenak oso onak diran arren, gure turismo eskaintzaren “finkatze prozesuan gagoz oraindino”. Irailera arte jasotako turisten kopuruan “%8,4ko” igoerea eta “2,8 milioi gau baino gehiago igarotea” ez dira nahikoak izan Bizkaiko hotelak beteteko, urteko lehenengo bederatzi hilebeteetako okupazino mailea “%66,4koa” izan dalako.

ZEMENDIAREN 1EAN AKTIBAUKO DA NEGUKO PLANA

Bizkaiko Foru Aldundiak “zemendiaren 1etik apirilaren 30era” aktibauko dau Lurraldeko errepideetako neguko plana, diputatuak jakinarazo dauenez. Erabiliko diren baliabideen artean “381 pertsona, edurra kentzeko 76 makina, 9.725 tona gatz eta 140 m³ gatzur” egongo dira.

Pradalesek operatiboaren barri zehatza emon deutse Batzarretako taldeei, eta baliabideen banaketarako lehentasunezko bederatzi guneakaz jarraituko dala gogoratu dau, hau da, A-8, AP-8 HSM, AP-8 Erletxe eta Ermua artean, N-637, N-240, Loiuko aireporturako sarbideak, Superporturako sarbideak, Ospitaleetarako sarbideak eta BI-631 errepidea Bilbo eta Derio artean (Santo Domingo).

Igazko urteagaz alderatuta, barrikuntza nagusiak edurra kentzeko hiru makina barri jaso izana, Txorierriko igarobidean gatz metatzeko lekua egokitu izana, orain denpora gitxi estreinau dan Gerediaga-Elorrio errepideko talde teknikoak, eta informazino “zehatzagoa” emongo daben estazino meteorologiko sare propioa aitatu behar dira. Azken horretan “100.000 euro” inbertidu ditu Aldundiak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
25/10/2016

Juntas Generales pide a la Diputación que estudie la implementación de la "marra gorria" en las carreteras de Bizkaia

La comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales ha aprobado hoy, por unanimidad, pedir a la Diputación foral de Bizkaia que elabore un informe técnico y jurídico en el plazo de seis meses, para determinar la viabilidad de implementar en las carreteras de Bizkaia la "marra gorria" como forma para proteger a los ciclistas. La proposición no de norma llevaba la firma de todos los grupos junteros a excepción del PP, grupo que finalmente se ha sumado con su voto afirmativo a la propuesta.

El pasado 13 de mayo comparecieron en la comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía representantes de Erandioko Txirringulari Elkartea en donde llevaron esta propuesta con la intención de que los grupos junteros la hicieran suya en forma de proposición no de norma. La medida, que según algunos junteros es "común" en algunos países europeos, es fácil de aplicar ya que supone pintar una línea roja en la calzada para delimitar el espacio de seguridad de 1,5 metros que debe existir entre vehículos motorizados y bicicletas en maniobras de adelantamiento.

Según han explicado hoy los grupos proponentes (PNV, PSE-EE, EH Bildu, Podemos Bizkaia y grupo Mixto), la Diputación debe establecer ahora si esta medida no choca con ninguna legislación en la materia como el Reglamento General de Carreteras, el Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas o el Plan Director Ciclable que viene recogido en la Norma Foral 10/2014 de vías ciclistas forales de Bizkaia.

RECHAZO A UN ESTUDIO SOBRE LOS ACCESOS AL HOSPITAL DE URDULIZ

En la misma sesión, la comisión ha rechazado una proposición no de norma de EH Bildu que defendía la elaboración de otro estudio para "integrar" el hospital de Urduliz dentro del planeamiento y flujos de tráfico de la comarca. La petición, en este caso, se dirigía tanto a la Diputación Foral de Bizkaia como al Gobierno Vasco, a quienes se solicitaba el compromiso de ejecutar dicho informe en el plazo de tres meses, recogiendo medidas para reducir las "afecciones" del centro hospitalario en el tráfico del entorno hospitalario. La propuesta de la coalición abertzale ha recibido el apoyo de Podemos Bizkaia y el grupo Mixto, y el rechazo de PNV y PSE-EE. El PP se ha abstenido.

Los tres grupos que han apoyado la propuesta han sostenido que el centro hospitalario Alfredo Espinosa necesita una solución "urgente" de sus accesos tal y como sostuvo la Plataforma Hospital Uribe en una comisión de la Cámara vizcaína celebrada hace cinco meses. El apoderado de EH Bildu, Zigor Isuskiza, ha explicado que la solución viaria debe recaer en la Diputación ya que se trata de unos accesos de carácter "supramunicipal" como establece la Ley del Suelo, y no un sistema local como se quiere hacer ver desde instancias forales.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Para el PNV, el acceso propuesto para el hospital, aún sin construir en su totalidad -sólo está ejecutado el planeado en suelo de Urduliz-, es “suficiente” para garantizar la accesibilidad al centro hospitalario. La jeltzale Irene Edesa ha recordado a EH Bildu que tanto Urduliz como Sopela adquirieron unos compromisos plenarios para recoger el vial que se plantea construir al final de la calle Olabide. El anterior equipo de gobierno de EH Bildu en el consistorio de Sopela decidió no ejecutar su parte, ha recordado Edesa quien ha pedido que se cumplan los compromisos adquiridos.

ESTADO DEL PLAN BIDESAREA

Por otra parte, el diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha comparecido en la misma sesión para dar cuenta, a petición del PP, del momento de ejecución del Plan Bidesarea que incorpora mejoras viales en “todas” las comarcas de Bizkaia, para contribuir a la “competitividad y desarrollo” de las mismas, y que viene a ser un complemento al plan de conservación de las carreteras del territorio.

De las “19 actuaciones” contempladas para el periodo 2015-2017, con un presupuesto de “51.415.376 euros”, Pradales ha informado de que se han finalizado seis de ellas con una inversión que suma “8.440.000 euros”. Se trataría de mejoras en la carretera BI-623 en Durango; la reordenación de accesos y aceras en la carretera BI-631 (Orueta-Santo Domingo); la estabilización y sostenimiento de la BI-2121 en Morga; la mejora de la carretera BI-633, en Urberuaga-Markina; la mejora de la seguridad vial de la BI-635; y la mejora funcional de la A-8 en el enlace de Larraskitu.

El responsable foral ha subrayado que otras cinco actuaciones, que suman una inversión de “20,43 millones”, están siendo ejecutadas en la actualidad. Y que el resto de mejoras -ocho- se acometerán ya el próximo año. En el primer trimestre, la Diputación prevé arrancar las obras de la BI 2636 en Etxebarria y la rectificación del trazado en la carretera BI-631 entre las gasolineras y el Alto de Santo Domingo. Para el segundo trimestre del año, quedaría la carretera de Urberuaga -Plazakola-Berriatua o la mejora de la BI-631 (Rotonda Variante de Mungia y Acceso a Trobika). Y ya, a partir de mitad de año, comenzarían las actuaciones restantes contempladas en el plan.

Pradales ha explicado que la primera parte del Plan Bidesarea está “cumpliendo los plazos” y espera que “dentro de un año” pueda presentar la segunda fase con actuaciones para el bienio 2017-2019. En él, algunas mejoras “están claras” y otras “dependerán de las demandas municipales y comarcales”.

“PENALIDAD DE 64.415 EUROS” AL GRUPO ANSAREO

Asimismo, el diputado de Desarrollo Económico y Territorial ha informado a los grupos junteros que la empresa explotadora del campo Meatzegi Golf, el grupo Ansareo, incumplió el pasado 8 de julio el contrato suscrito con Azpiegiturak, por cerrar el campo para la celebración de una fiesta privada. Por tal motivo, se le ha impuesto una “penalidad” de “64.415 euros” como establece el contrato por el “5%” de la cantidad que la concesionaria del recinto deportivo depositó como garantía.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Después de cruzarse varios burofax, Azpiegiturak comunicó a la empresa cuatro días después de esa fecha, que ésta no contaba con autorización para cerrar las instalaciones con el consiguiente “menoscabo de los derechos de uso” de los usuarios de Meaztegi Golf, lo que supuso “un claro incumplimiento contractual”, según Pradales.

TASA TURÍSTICA EN BIZKAIA

A otra cuestión planteada por el grupo Mixto sobre la posibilidad de establecer en Bizkaia una “tasa turística”, Pradales ha defendido que “antes” de abrirse un debate sobre esta cuestión, debe producirse primero la “consolidación” del destino turístico Bilbao-Bizkaia. El responsable foral ha recordado, en cualquier caso, que corresponde liderar esta cuestión al Gobierno y al Parlamento vascos, según se establece en la Ley Vasca de Turismo, aprobada el pasado 28 de julio.

Según él, en ese diagnóstico previo en torno a la aplicación de una tasa turística como ya sucede en otras ciudades europeas como Barcelona, París o Roma, deben tenerse en cuenta factores como el grado de fidelización turística, la participación de los agentes implicados y la finalidad de incorporar un gravamen al visitante.

Pradales ha sostenido que, pese a que en 2016 se batirá un nuevo récord de turistas en Bizkaia y de que la perspectiva es buena a corto plazo, “nos encontramos todavía en un proceso de consolidación” de nuestra oferta turística. La llegada de un “8,4%” más de turistas en el acumulado hasta septiembre y las “más de 2,8 millones de pernотaciones”, no han sido suficientes para llenar los hoteles vizcaínos puesto que la ocupación se situó en los primeros nueve meses del año en el “66,4%”.

EL 1 DE NOVIEMBRE, SE ACTIVA EL PLAN INVERNAL

La Diputación Foral de Bizkaia activará "del 1 de noviembre al 30 de abril", el plan de vialidad invernal de las carreteras del Territorio, según ha comunicado el diputado. Los recursos que se emplearán incluyen la participación de “381 personas, 76 máquinas quitanieves, 9.725 toneladas de sal y 140 m³ de salmuera.”

Pradales ha detallado a los grupos junteros el operativo recordando que se mantienen los nueve tramos prioritarios para la distribución de recursos, que son la A-8, la AP-8 VSM, la AP-8 entre Erletxes y Ermua, la N-637, la N-240, los accesos al aeropuerto de Loiu, los accesos al Superpuerto, los accesos a los centros hospitalarios y la BI-631 entre Bilbao y Derio (Santo Domingo).

Respecto al año pasado, las principales novedades son la incorporación de tres nuevas máquinas quitanieves, un acopio de sal en el corredor del Txorierrri, los equipos técnicos de la recién estrenada Gerediaga-Elorrio y una red propia de estaciones meteorológicas que ofrecerá una información “más concisa”, en la que la Diputación ha invertido “100.000 euros”.